



OIARTZUNGO
UDALA

2015 URTEKO AURREKONTU OROKORRA

MEMORIA

Prozedura

Aurrekontu proiektua Oiartzungo auzoetara eraman da eta proposamenak jaso eta Ogasun batzordean aztertu dira 2014ko urriaren 20 eta 28an, azaroaren 4, 11, 18, 25an eta abenduaren 9an.

Aurrekontuaren emaitza prozedura honetatik ondorioztatzen da.

Aurrekontuarekin bete nahi diren helburuak

Aurrekontuen helburu orokorra Udalak herritarrei zor dizkion zerbitzuen bermea ematearena da, herriko azpiegiturak eta ekipamenduak sortu nahiz hobetuko dituen inbertsioak egiteaz gain.

Aurrekontuaren helburu zehatzagoak hurrengoak dira:

Aurrekontua estutzen lan handia egin da azken 2 ekitaldietan. Egokitzapen honen ondorioz, 2015. urtean inbertsioak eta baita alor ezberdinak indartzeko aukera izan dugu.

Partehartzeari dagokionez, hiru proiektu ezberdin burutu nahi ditugu, "torri gukin" programa, skate park a eta aurrekontu partehartzaileen jarraipena.

Politika soziala indartzeari dagokionez, herrian dauden behar ezberdinei erantzuteko asmoz, lanpostu ezberdinak sortzen jarraituko dugu.

Obrak eta Zerbitzuen arloari dagokionez iazko erronka nagusiekin batera (atez-ateko hondakinen bilketa eta garraio publiko sarea), auzoetan dauden hainbat gabezi eta beharrei irtenbidea emateko neurriak hartzea dugu helburu, honetarako auzo bakoitzak beren partida izango duelarik eta haurrentzako jolastokiak berritzen joateko asmoa dugu. Auzolana ere gure ardatzetako bat izango da hau guztia gauzatzeko. Zehazteagatik, ondorengoak dira arloko erronkak:

1. **Atez-ateko hondakinen bilketa:** Hondakinekin bizi dugun arazo larria ikusita, atez-ateko bilketa sistema eusteko apustua egiten dugu. Gainera, aurrera begira urrats berriak eman nahiko genituzke zerbitzua hobetu eta baliabideak optimizatzeko: poltsa berrerabilgarrien lanketa, edalontzi berrerabilgarrien erabileran aldatetako eta puntu beltzen jarraipena. Aurten auzokonposta guneak auzo gehiagotan jarriko ditugu, Olaldeko ereduarekin jarraituz. Elkarte gastronomikoekin ere lanketa berezia egingo



OIARTZUNGO
UDALA

da. Azkenik, kanpainak burutuko dira garbigune eta emergentzi guneetan erabilera desegokiekkin amaitzeko.

2. **Garraio publiko propio eta bideragarria:** Foru Aldundiaren eta Jaurlaritzaren eskumenekoak diren garraio publiko sareez gain, Oiartzungo Udalak baditu bi zerbitzu propio sortuak: Taxibus eta Xorrola. Biak bultzatzen jarraitzeko apustua egiten dugu. Geltokien egokitzapena izango da burutuko dugun hobekuntza nagusietariko bat, ordutegi kartelak...
3. **Auzoetan dauden hainbat gabezi eta beharrei irtenbidea emateko neurriak:** 2015eko aurrekontu partehartzaileen barnean, auzoetako inbertsioak auzotarrekin zehaztu dira, honetarako bi bilera egin direlarik auzo bakoitzean, baita buzoi eta gutunak bidaliz ikuspuntu guztiak bermatu nahian (gazteei batez ere). auzoeskaerak@oiartzun.org sortu da, beharrak ere bildu ahal izateko. Bilera hauetan, auzoetan dauden beharrak identifikatu eta lehentasunak zehaztu dira. Honetarako 160.000 € jarri ditugu, auzo bakoitzak 20.000 € izango dituelarik lan hauek gauzatzeko.
4. **Brigadaren biltegirako pabilioaren erosketa:** Udalaren brigada dagoen Gaetxeko pabilioarako errentamentu kontratu bat sinatu zen 2010ean. Bertan erosketa aukera bat aurreikusi zen 2014 urterako. Udalak erosketa aukera hori aprobetxatu du eta ordainketa bi zatitan egingo denez 2015 urtean amaituko delarik pabilioaren erosketa.
5. **Auzolana:** Hau dugu, auzoetako beharren egitasmoarekin batera, 2015 urteari begira egitasmo nagusienetarikoa bat. 2012, 2013 eta 2014ko bideari eutsiko diogu eta partida bat mantenduko dugu auzolanerako, bai auzoetara bideratzen diren auzolan egitasmoak gauzatzeko baina, baita herri mailan suertatzen direnentzako ere.
6. **Jolastokiak:** Herrian zehar dauden jolastokiak berritzeko asmoa dugu. 2013 eta 2014 urteetan eman ziren lehen urratsak eta oraingoan partida zehatza jarri dugu lan honetarako. 2015eko erronka, mantenuaren kontratua eguneratzearena da.
7. **Poligonoen biziberritzea:** Lan hauekin hasi ondoren, 2015erako, Lanbarrenen egokitzapenarekin lehen fasearekin amaitu eta beste poligonoen biziberritzeari ekingo diogu. Aurrera begira, urtero errepikatuko den lan lerroa izango dela aurreikusten da.
8. **Hilerriko kuadrantea:** azken urteetan hilerria txiki geratu denez, kuadranteen ustuketa bat eman behar da, periodikoki egiten dugun bezala.
9. **Ur- hodian berritze lanak:** Azken urteetan ur-horniduran lan asko egin dira eta hoderia zenbait gunetan zaharkituta dago eta arazoak sortu izan dira. Aldi berean, hoderia metro asko daude "fibrozementuzkoak" eta hauek pixkanaka aldatu eta egokitzeko beharri aurre egingo diogu.
10. **Argiteria-Auditori Energetikoa:** 2012an egindako auditoriari esker, herriko zenbait behar identifikatu dira. Iaz hasitako bideari eutsiz (Altzibar auzoa), aurrean ere beste auzoetan egokitzapenak egiten jarraituko dugu.



OIARTZUNGO
UDALA

11. **Irisgarritasun Plana** : Herri osoan zehar dauden gabezi eta hutsuneak aztertu behar direnez, irisgarritasun plan batekin hasiko gara.

Gizarte politikari dagokionez hauek dira sailaren lehentasunak 2015 urterako:

1. **Arazo ekonomiko larriak pairatzen ari diren oiartzuar familiei eta herritarrei babesa ematea.** Udalak erantzun sendoa eman nahi die krisiak sortu dituen hainbat egoera larriei.
2. **Pobrezia mugan dauden familien egoera burokratikoak arintzea eta erraztea.**
3. **Etxez etxeko zerbitzua.** Menpekotasunak dituzten herritarren kopurua gora doa. Hau dela eta, Etxez Etxeko zerbitzuaren beharrak ikusita zerbitzu hau indartu nahi dugu.
4. **Gizarte-Hezkuntza Kontseiluaren garapena bermatu:** Herriko prebentzio sarea osatu eta martxan jarri. Ikastetxeen, familien eta herriko eragileen konpromisoa lortzea oiartzuarren bizi kalitatea hobetzeko.
5. **Egitasmo berrietan parte hartu:** Tipi Tapa proiektua, ospitaletan dauden pertsonen arreta, adin txikikoekin zenbait inizatiba, gizarte eragileen arteko jarduerak, kanpin eta errolden inguruko ikerketa...
6. **Arraztalo elkartearen** proiektua ebaluatu eta, ahal den neurrian, hobekuntza proposamenak egingo dira.
7. Prebentzio sistema egituratzea.
8. Gizarte zerbitzuak erabiltzen dituzten **emakumeen beharren azterketa eta egoeraren balorazioa egin**, aukeren berdintasuna, diskriminazio positiboa eta parekidetzaren aldeko politikak bultzatzeko.
9. **Elkarlan egitasmoak.** Gazteria saila, hezkuntza eta gizarte zerbitzuen arteko elkarlana antolatzea giza portaerak bultzatzeko herritarren artean. Bestalde, Oarsoaldeko gizarte zerbitzuekin elkarlana sendotzea bailaran dauden behar eta arazo amankomunei aurre egiteko.

Mendia eta ingurumenaren arloari dagokionean helburu nagusienak honakoak dira:

Beste urteetan hasitako lanei jarraipena ematearekin batera aurten Landalurraren mantenu lanei, hirilurrean egiten den bezelaxe, garrantzi berezia eman nahi izan zaie beharrezkoak jotzen diren garbiketa lanak egin ahal izateko nahiko giza-baliabide jarriaz.

Bestalde, Agenda 21-ari eta bereziki ikastetxeek gai honen egiten duten lan eskergari bultzada bat eman nahi izan zaio beharrezkoak dituzten baliabide ekonomikoak bideratuz .



OIARTZUNGO
UDALA

Gauzak horrela aurtan, beste urteetan bezelaxe, udalez kanpo baina gure arduraren barne sartzen diren hainbat egituretan parte aktibo izaten jarraituko dugu, hala nola:

1. **Gipuzkoako parke-etxe sarea:** Gipuzkoako Foru Aldundiak parke-etxe sare bat sortua du eta Udalak proiektu honetan parte hartzen du.
2. **Aiako Harriko Parke Naturala:** Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, behar beharrezkoa dugun kudeaketa partekatu honetan sakontzen jarraitu nahi dugu.

Kultura, euskara eta kirolaren arloari dagokionez, iazko ekimenekin jarraituko dugu.

Euskarari dagokionean, arlo estrategikotzat ulertzen dugunez, 2011an egindako Euskara Bizi Berritze Plan Nagusia (EBPN) gauzatzen joan dadin ahal den neurrian baliabideak jarriko dira. Besteak beste lehentasuna **Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko planak, ahozotasunak** (oiartzuera sustatzea) eta **etorri berrien hizkuntza harrerak** izango du. Bestalde, 2015.urtean, arlo sozioekonomikoa (enpresa txiki eta ertainak) gehiago landu eta sakondu nahi dugu. Horrez gain, aurreko urtean beka sisteman egindako aldaketarekin aurrera jarraituko dugu, helduen euskalduntzean erraztasunak emanez.

Azkenik, herriko euskalgintzarekin harreman estua mantentzen jarraituko dugu ekimen eta hitzarmen ezberdinak aurrera atera ahal izateko.

Kirolari dagokionez, elkartei babesteko **diru laguntza handituko** da. Elkarteekin Kirol kontseiluan adostutako irizpide taularen baitan banatuko dira diru laguntzak eta beraiekin elkarlanean taula hau egokitzen jarraituko dugu, datorren denboraldirako irizpide berriak indarrean jarriko direlarik. Sor daitezkeen murrizketen ondorioak konpentsatzeko eta bereziki sustatu nahi diren kirol jarduerak laguntzeko partidarekin jarraituko dugu. Era berean, datu basearen aplikazio informatikoa hobetzen jarraituko da eta E1 egitasmoa, emakumea pilotari eta eskola pilota egitasmoak babesten jarraituko da. Eskualdeko Kirol mahaiaren partaide izaten jarraituko dugu eta eskualdeko egitasmoetan parte hartuko dugu.

Uda Kirol eskaintza sendotuko dugu eta bi egitasmori hasiera emango zaie herrian; eskalada saioak eta txirrindularitza eskola.

Erronka berria formakuntzarekin izango dugu. Lehen sorospen ikastaroak egingo ditugu herriko begiraleekin eta gatazkak sortzen direnean zer egin landuko dugu.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, eskualdeko 4 Udalek abian jarritako mugikortasun proiektua lantzen jarraituko dugu. Honela, eskola kiroleko saioetara garraio publiko edo/ eta bizkiletaz joatea ahalbidetuko dugu.

Kiroldegia herriko instalakuntza erabilienetakoa izanik, egun bizi duen egoera tarteko, partida indartu dugu, herriari ematen zaion zerbitzu hau mantentzearren.

Skate Parkaren proiektuaren lehen faseari hasiera emango zaio, parte hartze egitasmoaren bidez.

Gazteriari dagokionez, partida bat zehaztu da herriko gazteek bultzatuta sor daitezkeen proiektuak babesteko. Ekintzailetasuna bultzatzea du helburu.

Udaleku, Kale ekintzak, Ludoteka eta Famili eremua batu ditugu, honela gazteen aisialdirako proiektu eta ekintzak babesten jarraitzeko.



OIARTZUNGO
UDALA

Azkenik, iaz gazteei eskaintzeko martxan jarritako egitasmo berritua, Kuadrillategi izena mantendu duena, Euskara sailarekin batera mantendu dugu eta egitasmoa indartzen jarraituko dugu.

Kultur arloan iaztik habian jarritako hainbat egitasmorekin jarraituko dugu, eta beste zenbait egitasmo berri martxan jartzea ere aurreikusten dugu. Hauek izango dira puntu nagusienak:

1. **Argazki artxiboaren bigarren fasearen emaitza herritarren esku jarri.** 2014ean argazki artxiboaren bigarren fasearekin bukatu dugu eta, Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin, argazkiak webgunera igo eta bilatzailean txertatuko ditugu 2015ean zehar.
2. **Antzerkingintza indartzen jarraitu.**
3. **Olarri dantza talde berriari kontsolidatzen lagundu.** Horretarako, materiala erosteko diru-laguntzak eta lokala atontzeko laguntza ematen jarraituko dugu.
4. **Ibargain Musika eskolako beka sistema berritu.** Datorren ikasturterako beka-sisteman aldaketa batzuk sartu ditugu, LH6 bitarteko hurrei laguntzeko (beti ere errentaren arabera modu progresiboan).
5. **Astralamustrika bilduma.** 2015ean Astralamustrika bildumako azken alea argitaratuko dugu. 2012an bildumarekin amaitzea planteatu genuen, baina azken bi ale hitzartuta zeuden eta beraz azken bi aleak bi urtetik behin eta beste modu batera egitea proposatu genuen.

Egoera ekonomikoa.

Aurrekontu Orokorra. Udaleko egoera ekonomikoa normala da, ohiko diru-sarrerak (14.689.950,00 €.-) ohiko gastuei (13.345.886,33 €.-) gaintitzen dituztelako, horrela gaintekin hauek inbertsio gastuak finantzatzeko bideratuz.

Estabilitate Lege berriari jarraituz sarreretako lehenengo 7 kapituluak gastuetako 7 kapituluak baino handiagoak dira.

Egoera finantzarioa.

Eskueran dauden errekurtsoen jariakortasun eta aldizkotasunak gastuen ordainketa puntuala onartzen du.

Orubearen Egoera



OIARTZUNGO
UDALA

Udal ondarea gaur egun indarrean dagoen kontabilitatean, 2009an onartutako Inbentarioari esker eguneratua ikus dezakegu.

Laborazio Irizpideak

2015 ekitaldirako egin den Aurrekontu Proiektua 2014 urteko Aurrekontuaren exekuzioan informaziotik abiatuta egina izan da, era berean kontuan izan da etengabeko jarraipenaren betebeharrak, bai legeak ezarrita edo onartu diren betebeharren arabera, dena den, aurreko ekitaldiko etekinen arabera estimatu diren diru-sarrerak edo tarifa eta kuotan igoeraren ondorio bezala.

Aurrekontuaren edukia

Ondoren aipatzen dira aurreko Aurrekontua kontuan edukita egin diren aldaketa nagusienak:

1. Gastuaren aldaketa. Jarraitu den irizpidea 2014ko aurrekontuaren exekuziotik abiatu eta K.P.I.-ren igoera ezartzea izan da ohizko gastuarentzat.
2. Dirubidetze gastuei buruz esan daiteke hauek pasa den ekitaldiarekin parean izango direla, OKISAra eta OTASaren jarduera arrunta eta Oiartzungo Udal Partzuergoa aurrera eramateko dirulaguntzak izapidetuz.
3. 3. eta 9. kapituluetan. Aurreko urtetan egin diren inbertsioen eragina ikusten da aurreikusten diren gastuetan.

Diru-sarreretan aldakuntza

1. 2. eta 3. kapituluko ohiko diru sarreraren igoera zergadun unitate berriak azaldu direlako izan da, zergapide oinarrien igoera, Udalak onartutako akordioetan Ordenantza Zergetako tarifa, tipo edo kuoten igoeratik. 2. kapituluan, 2014an moduan, oso behetik jo da krisi ekonomikoak eraikuntza alorrean eragin duen geldialdiatik.

4. kapituluan iazko kopuruekin alderatuz, jaitsiera bat egon da Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzetan egondako jaitsieratik.

5. kapituluaren kasuan, 2014rako ohiko sarrerekin osatu da.

9. kapitulua Udaleko zorpetzearen arabera finkatu da. Aurrekontua estutzen lan handia egin da azken 2 ekitaldietan eta honen ondorioa izan da atal honen jaitsiera 2015 urteari begira, horrela udalak 2015ean urtean ez du mailegurik aurreikusten. Ahal den neurrian lan honekin jarraitu nahi dugu etorkizunean, beti ere diruzaintza egoera zainduz estutasunik ez pasatzeko.

Oiartzun, 2014ko azaroaren 27a
ALKATEAK,